

## NOTA DE PRENSA

### MERCABILBAO-K BILBOKO HANDIZKAKO MERKATUEN ZERBITZU PUBLIKOA MODU ZUZENEAN ETA MUGAGABEAN KUDEATZEN DU

- Iñaki Azkuna jaunak, Bilboko Alkateak, eta Ignacio Cruz Roche jaunak, Mercasa enpresaren ordezkartzan, akordio bat sinatu dute Mercabilbao-ren bitartez zerbitzua eskaintzen jarraituko dela bermatzeko.
- Alderdi sinatzaileen adostasunez, Mercabilbao-k zerbitzua modu mugagabearen eskaintzen jarraituko du eta, hori, elikadura-unitate horretan kokatutako ehun bat enpresentzako etorkizuneko berme izango da

Bilbo, 2011ko apirilaren 5ean.- Mercabilbao, Mercados Centrales de Abastecimiento de Bilbao SA sozietateak, non, Bilboko Udala eta Mercasa akziodunak diren, bere kudeaketa-modalitatea aldatu du handizkako merkatuen zerbitzu publikoaren jarraipena bermatzeko.

Bilboko Udaleko Alkateak, Iñaki Azkuna jaunak, eta Ignacio Cruz Roche jaunak, Mercasa, Mercados Centrales de Abastecimientos SA sozietateko lehendakariak -estatuko gobernuaren menpe dagoena- akordio hori izenpetu dute; ondorioz, Mercabilbao zerbitzuaren kudeatzaile zuzen bihurtzen da denbora mugarik gabe.

Indarrean dagoen urriaren 30eko Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legea onartu ondoren, Lege horretako 8.2 artikulua eta apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 85.2 artikulua oso-osorik titulartasun publikokoak diren sozietateek gauzatutako kudeaketaren kontratuzko izaera baztertzen dute eta kudeaketa zuzentzat hartzen dute denbora-mugarik gabe. Ondorio horietarako, Mercabilbao sozietateko Akziodunen Batzar Orokor Unibertsalean,

2010eko ekainaren 29an egin zena, akzioen titular akziodun pribatuak diren sozietateko akzioak amortizatzea erabaki zen. Horrela, une honetan, Mercabilbao bere osotasunean publikoa den kapitalaz eratutako sozietatea da eta horrek zerbitzuaren zuzeneko kudeaketaren modalitatean sartzeko gaitzen du, orain arte zeharko kudeaketa modalitatepean kudeatuta bazegoen ere. Kudeaketa-aldaketa horretara alderdi sinatzaileen adostasunez iritsi da; beraz, Mercabilbao sozietateak bere Estatutuak aldatuko ditu egoera berrira egokitu daitezen kapitalaren titular diren administrazioek eta erakunde publikoek sozietatearen objektuaren baitan egoki iritzitako kudeaketa-aginduak gauzatu ahal izateko.

#### **Erronkak etorkizunari begira**

Sinaduraren ondoren, Mercabilbao-k lanean jarraituko du kantauriar isurialde osoko erreferentzia-puntu izaten jarraitzeko, bere eragin-eremua zabaltzeko eta salgaien birbidalketan erreferentzia izaten jarraitzeko. Halaber, aitzindari izan nahi du Bilboko Udaleko Osasun Arloko profesionalek jakien osasungarritasuna bermatzeko beren instalazioetan egunero egiten dituzten ikuskapenekin bat datozen elikadura-eremuan gauzatutako berrikuntza-jardueretan. Hiri-merkataritzari babesa emango dieten eta kontsumo arduratsua, elkartasun-ekimenak nahiz ingurumen-politika eta -ekintza berritzaileak sustatuko dituzten ekimenak gauzatzearen aldeko apustua egin dute.

Mercabilbao-k urratsak emango ditu elikadura-polo bat eratzeko kokapen berri bat aurkitzeko, non, egungo jarduerari balio erantsia emango dioten zerbitzuek egongo diren, esate baterako, laugarren edo bosgarren gamako produktuak edo zerbitzuak, logistika eta banaketa arrazionalagoari bide ematen lagunduko dutenak.

#### **UDALA • AYUNTAMIENTO**

Prentsa Kabinetea - Gabinete de Prensa E. Erkoreka Plaza, z/g 48001  
Bilbo

Tel.: 94 420 52 61 / 94 420 52 15 Faxa: 94 420 52 16 H. elek:  
prensa@alcaldia.bilbao.net [www.bilbao.net](http://www.bilbao.net)

